# Hamaika Gasteiz telebista ikusi ahal izateko atzerako kontua hasi da

**Arabarako euskarazko telebista egitasmoak aurkeztu dira EKTk antolatu jardunaldien azken egunean**

**Jon Rejado** Gasteiz



Hamaika Gasteiz telebistako aurkezpena, atzo, Artiumen. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Atzerako kontua hasi da. Hilabete gutxi barru Gasteizko, Arabako Lautadako eta Errioxako euskaldunek euskarazko tokiko telebista ikusteko aukera izango dute: Hamaika Gasteiz telebista. Itzalaldi analogikoarekin batera helduko da egitasmoa, eta Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan egin zen atzo egitasmo horren aurkezpena, *Hedabideak etorkizunean, biharko komunikabideak eta Internet* jardunaldien azken egunean.

EKT Euskarazko Komunikazio Taldeak Arabako Foru Aldundiaren babesarekin antolatutako jardunaldi horien azken egunean aurkeztu zituen Hamaika Telebistak Arabarako dituen egitasmoak, Gasteizkoa ez baita izango Arabako bakarra. Laudion ere urte eta erdiko epean telebista bat abiarazteko helburua dute. Aiarako harana hartuko du telebista horrek.

> «Euskaldunok gure hedabideak behar ditugu, ulertzen gaituztenak, gertukoak»
> **IÑAKI URIA**
> Hamaika taldeko zuzendaria

Gasteizko egitasmoak lehentasuna du orain, Iñaki Uria Hamaika taldeko zuzendariak esan zuenez. «Gasteiz euskalduntzeko prozesua aurrera doa, eta Hamaika Gasteiz telebistak prozesu horretan parte hartu nahi du tresna moduan». Gainera, euskara ez ezik, tokikotasuna eta parte-hartzaile izaera dira Hamaika Telebistaren nortasun zeinu nagusiak, Uriaren esanetan. Euskaldunen eta euskal herritarren artean komunikatzeko tresnak behar direla nabarmendu zuen . «Gure hedabideak behar ditugu, ulertzen gaituztenak, gertukoak, zer garen eta nolakoak garen erakusten dituztenak, komunikatzeko helburua dutenak».

## Ordezkapen zabala

Uriarekin batera, Hamaika Bilbo Telebistako ordezkari batzuk ere izan ziren atzo aurkezpenean, baita Arabako esparru guztietako ordezkariak ere. Hainbat hedabidetako kazetariak eta ordezkariak ere bildu ziren, Julio Iturri *Diario de Noticias de Alava* egunkariko zuzendaria eta Joanmari Larrarte EKTko kontseilari ordezkaria.

Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazio eta Lurralde Oreka foru diputatu Alfredo de Miguel, Herrilan eta Garraio foru diputatu Luis Zarrabeitia eta Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatu Lorena Lopez de Lacalle ere izan ziren aurkezpenean. Alderdi abertzale guztien ordezkariak ere izan ziren, EAko Iñaki Gil, EAJko Roman Berriozabal, Aralarreko Mikel Basabe legebiltzarkidea eta Arabako Biltzar Nagusietako EAE-ANVko Aitor Bezares, besteak beste.

Kulturarekin eta euskararekin lotutako hamaika lagun ere bildu ziren Artiumen. Arabako Ikastolen Elkarteko Joseba Aginagalde, Kunka antzerki taldeko Eloy Beato eta Josean de Miguel, Krea kultur guneko zuzendari Araceli de la Horra eta Xabideko Frederic Alzola bertan izan ziren, besteak beste. Euskalduntzearen alorreko zein beste esparru batzuetako eragileen ordezkariak ere izan ziren.

Ezkongaiak 2010-11 lehiaketa
Irabazi sariak Loyola Mediarekin
2010-11ean ezkontzen bazara, abenduaren 3a aurretik hau bete eta ondorengo helbideren batera bidali
HERRI IRRATIA - DONOSTIA
Garibai 19
20004 DONOSTIA
...edo...
HERRI IRRATIA - LOIOLA
Loiola Auzoa
20730 AZPEITIA
Senargaiaren izen-abizenak: Telefonoa:
Helbidea: Posta-Kodea: Herria:
Emaztegaiaren izen-abizenak: Telefonoa:
Helbidea: Posta-Kodea: Herria:
Ezkontzaren gutxi gora-beherako data:
e-posta ezkongaiak@loyolamedia.com

DONOSTIA
OM 1224 - FM 94.8

IZARRA BITXITEGIA
Juan XXIII plaza eta Geltoki 19. Lasarte - Oria. 943 36 49 45.
Oparia: urrezko ezkontza-eraztunak eta ezkontza-hontiak.
SILKEN AMARA PLAZA HOTELA
943 46 46 00. Oparia: Silken kateko hotel batetan 2 pertsonentzako asteburua (2 gau + gosariak).
SANCHEZ INPRIMATEGIA
Easo, 33. Donostia. 943 46 53 08. Katalogoak eta gonbidapenak.
Oparia: ezkontzarako gonbidapenak.
AUZMENDI SASTREA
Bergara, 1. Donostia. 943 42 40 60. Senargaientzako jantziak.
Oparia: senargai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela
LASTURREKO ZEZENAK - LASTUR JATETXEA
San Nikolas Plaza. Lastur. 943 19 90 33.
Oparia: zezen-festa doan.
MURIXKA DANTZA TALDEA
662 04 39 44. Elizkizunerako amaierarik hoberena.
Opariaelizkizunaren irteerako emanaldia, aurreskua...
JAUREGI JATETXEA
Jauregi auzoa. Hernani. Ezkontz, jaunartze, urteurrenak. 943 55 00 34.
Oparia: Presidentetza-mahaikideentzako bazkari/afaria.
BIKOITZ ARGAZKIAK
Nagusia 19 eta Zumea Plaza 6. Andoain. 943 30 07 27.
Oparia: argazki erreportajean 300 €-tako beherapen txartela.
EROSKI BIDAIAK
Oparia: Caribera bi pertsonentzako bidaia (9 egun).
TXARO AGUERRI
Txofre Plaza 14. Donostia. 943 32 78 88. Emaztegai jantziak.
Oparia: emaztegai jantziarentzako 300€-tako erosketa txartela.



LOIOLA
99.8 FM

GRUPO ARKAUZ
Araba etorbidea 20. Aretxabaleta. 943 79 23 51.
Somierra eta senar-emazteentzako Flex koltxoia.
LASA JATETXEA
Ozaeta Jauregia. Bergara. 943 76 10 55.
Oparia: 6 pertsonentzako dastatzeko menua.
AUZMENDI SASTREA
Bergara, 1. Donostia. 943 42 40 60. Senargaientzako jantziak.
Oparia: senargai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela
ORDULARI
Jose de Artetxe 10. Azpeitia. 943 81 52 44.
Oparia: ezkontzarako eraztunak.
LORE ESTETIKA ETA LURRINDEGIA
Olarte 10. Arrasate. 943 79 52 50.
Oparia: emaztegaiaren erabateko tratamendu estetikoa.
KIMETZ ILEAPAINDEGIAK
Azpeitia, Eibar eta Donostian. 943 15 01 61.
Oparia: emaztegai eta senargaiaren orrazketa, makilajea eta aurretiko proba.
Loyola Media